

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 3koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Lan-baimen arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2020ko martxoaren 4eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2020ko martxoaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 50. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Uraren Euskal Agentziaren Lan-baimen arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Lan-baimen arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzako Lan-baimen arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Josu Perea Arandia (Uraren Euskal Agentzia)	Iñaki Arrate Jorrín (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Aitor Beldarrain Uriondo (Uraren Euskal Agentzia)	Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza (Uraren Euskal Agentzia)
Idazkaria	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta CRH consultores kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.crhconsultores.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko apirilaren 3a.

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta
Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia